4.- JAKINARAZTEA erabaki hau interesatu guztiei.

Emandako bota azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du kontrako bota eman duela, ez dagoelako ados proposatutako prozedurarekin, nahiz eta ezer ez duen Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 4. areako —Aita



Lertxundi— 4.2. Hirigintza Jarduketa Unitaterako ezarritako planeamendu urbanistikoaren kontra.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA, ORIOKO ARRAUNEKO TEKNIFIKAZIO ZENTRO BEREZIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN HAINBAT ZERBITZU KONTRATATZEKO, PROZEDURA IREKIZ, OHIKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ; KONTRATATUKO DIREN ZERBITZUAK HAUEK DIRA: ARRAUNEKO TEKNIFIKAZIO ZENTRO BEREZIAREN EXEKUZIO PROIEKTUA IDAZTEA ETA ZENTRO HORREN INSTALAZIOAK BERRITU ETA HANDITZEKO OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA, DAGOZKION SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERKETEKin, KALITATE KONTROLEKO PROGRAMAREKIN ETA AZTERKETA HIDRAULIKOAREKIN.

Iñaki Garcia sartzen da berriro udalbatzarraren aretora, 19:40 orduak direla.

Alkateak hartzen du hitza eta bertaratutakoei proposatzen die gaia mahai gainean uztea, baldintza orriak gaztelania hutsez daudelako, nahiz eta euskarazko bertsioa dagoeneko oso aurreratuta dagoen. Beraz, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantza betetzeko, proposatzen du itxoitea euskarazko bertsioa bukatuta egon arte eta, ondoren, alkate-dekretuz onartzea, kontratacioaren kopuruak ez baitu gainditzen aurrekontuaren ohiko errekurtoen % 10a.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta proposatzen du, behin baldintza orria euskaratuta dagoenean, berriz udalbatzarrera ekartzea, onartzeko.

Leire Zinkunegi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du berdin tratatu behar direla herriko kirol eta kultur elkartea guztiak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BI KONTRAKO BOTO**]:

MAHAI GAINean UZTEA Orioko arrauneko teknifikazio zentro bereziarekin zerikusia duten hainbat zerbitzu kontratatzeko baldintza ekonomiko-administratibo partikularren orriaren onarpena, **HARIK ETA** baldintza orri horiek euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon arte.

Emandako bota azaltzeko, Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du ez daukala ezer aipatutako baldintza orria onartzearren kontra; baina ez datorrela bat alkateak agertu duen asmoarekin, behin baldintza orria ele bietan dagoenean, alkate dekretuz onartzeko, udalbatzarrean onartzeko partez.



Joseba Goiburu zinegotziak ere hitza hartzen du eta kritikatu egiten ditu EAJ, EA eta PSE-EE-PSOEko zinegotziak, btoa aldatu dutelako atzoko batzorde informatzilean gaurko udalbatzarrera bitartean.

10.- KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN KONTRAKO 33/01 SUMARIOARI BURUZKOA, ETA EAJ TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIO ALTERNATIBOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioak honela dio, hitzez hitz:

"33/01, amnistiaaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean adierazi nahi dugu:

Dispertsioa salatzea ez da delitua. Preso politikoaren kolektiboaren kontra hamarkadatan ezarri den eta ezartzen den dispertsio eta muturreko neurriek osatzen duten salbuespen egoera da delitua.

Tortura salatzea ez da delitua. Torturatzea eta tortura ahalbidetzen duen tresneria hori guztia da delitua; salbuespeneko tribunalak, inkomunikazio legea eta funtsean torturatzeko eraikia den inpunitate esparria bera da delitua.

Errepresioa salatzea eta pertsonen eskubideak babestea ez da delitua. Estatuen biolentzia eta eskubide urraketa dira delituak.

Elkartasuna ez da delitua. Presoak eta euskal herrian errepresioa jasaten duten milaka emakume eta gizon babes eta elkartasunik gabe uzteko mugimenduen kontrako kriminalizazio eta erasoak dira delitua.

Preso, iheslari eta beren senitartekoak lagundu eta babestea ez da delitua. Kolektibo hauek hondoratzeko eta zatitzeko helburuarekin burutzen diren jazarpen, eraso eta eskubide urraketa horiek guztiak dira delitua.

Auzipetu dutena eta epaitu nahi dutena Estatuen biolentzia eta errepresioaren salaketa eta euskal preso nahiz errepresaliatu guztieniko elkartasuna da. Frantziako eta Espainiako estatuak euskal gizartearen eta munduaren aurrean biluzten dituen eta beren izaera ez demokratikoa begi bistako egiten duen testigu nagusia erditik kendu nahi dutelako.

Honenbestez, udal honek ondorengo eskakizun eta konpromisoak zehazten ditu:

- elkartasun eta babesia luzatzen diegu amnistiaaren aldeko mugimenduko 27 auziperatu eta mugimendu honetako militante guztiei

- auzi honek dakartzan galera ekonomikoei aurre egiteko Euroko diru laguntza emango diegu.



- Kriminalizatu nahi den amnistiaaren aldeko mugimenduak bere lanean jarraitzeko duen zilegitasuna aldarrikatzen dugu Spainiako estatuaren eta sistema judizialaren aurrean eta bere lan sozial eta politikoan jarraitzeko ezartzen ari zaizkien trabak gainditzeko exijentzia luzatzen dugu. Auzi honen amaierarekin batera, debeku eta kriminalizazio ekintzak amaitzea.

- Eskubide zibil eta politikoen urraketa, tortura eta euskal herritarren kontrako errepresio bidegabearen zerrenda amaigabea ahalbidetzen duen auzitegi nazionalaren desagerpena aldarrikatzen dugu.”

Segidan, Udalbatzarrak EAJ-PNV udal talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboaren berri jakiten du. Mozio alternatiboak, hitzez hitz, honela dio:

“33/01, amnistiaaren aldeko mugimenduaren aurkako auziaren aurrean, EAJko udal taldeak, udalbatzari hurrengo mozioa aurkezten dio, bertan eztabaidea eta onar dezan:

MOZIOA

1.- Udal honek, norbanako giza eskubide guztien aldeko jarrera irmoa adierazten du. Printzipio humanitarioekin zein gizakien eskubide eta askatasunarekin duen konpromisoa.

2.- Euskal presoak jasaten ari diren dispertsio, urrunte eta inkomunikazioa da eurei eta euren familiei kartzela politikak ezartzen dien zigor gehigarrik handiena.

3.- Guzti hau salatzeak eraman ditu 27 euskal hiritarrak auziperatuak izatera. ETA erakundearen parte izatearen edo laguntza eskaintzearen akusaziopean.

4.- Bere garaian, diseinu eta bultzada politikoaren eskutik, “dena ETA da” tesiaren aldeko apustua eginez epaitegietan jantzi judiziala eman nahi izatea salatzen dugu.

5.- Gatazkaren humanizazioaren eta berradiskidetzearen aldeko konpromisoa dugunok, herri honetan giza eskubideen etengabeko urraketa guztiak salatzea exijitzen dugu.

6.- Bizi dugun egoera politiko honetan, auzi hau ere bake eta normalizaziorako oztropoa bilakatzen ari da. Irekitako kausa penaletan zuzeneko erantzukizun eta eskumena duten Espaniako instituzioei amaiera eman diezaietela jazarpen politiko eta judizialeko prozesu honi eskatzen dugu.”

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, aurrena, Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa bozkatzen da, honako emaitzarekin:

Aldeko bota ematen dute Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar) zinegotziek, guztira **BOST ALDEKO BOTO**.

Abstentzio bota ematen du Cotado (EA) zinegotziak, guztira **ABSTENTZIO BAT**.



Kontrako botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**.

Berdinketa gertatzen denez (bost aldeko boto eta bost kontrako), indarrean dagoen araudiak agintzen duenari jarraituz, bigarren bozketa egiten da, emaitza bera sortzen duena (bost aldeko boto eta bost kontrako); beraz, alkateak bere kalitatezko botoa erabiltzen ez duenez, **MAHAI GAINEAN GERATZEN DA** Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek 33/01 sumarioari buruz aurkeztu duten mozioa.

Segidan, EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa bozkatzen da, honako emaitzarekin:

Aldeko botoa ematen dute Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**, udalbatzakideen gehiengo absolutua.

Abstentzio botoa ematen du Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziak, guztira **ABSTENTZIO BAT**.

Beraz, Udalbatzarrak honako hau **ERABAKITZEN DU**:

ONARTZEA EAJ-PNV talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa, amnistiaaren aldeko mugimenduaren kontrako 33/01 sumarioari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoak azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bi bozketa egin direla, baina bakarra izan zitekeela, zeren eta, bere ustez, bi mozioak antzekoak baitira; adierazten du ez duela ulertzten nolatan eman dion EAJk kontrako botoa Belasko, Goiburu eta Zinkunegik aurkeztutako mozioari.

11.- BAT EGITEA, EGOKI BADA, EUDELEK ISAIAS CARRASCOREN HILKETA DELA ETA BIDALITAKO IDATZIAREKIN

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EUDELen idatziak honela dio, hitzez hitz:

“ORIOKO UDALAK BAT EGITEN DU EUDELEK ISAIAS CARRASCOREN HILKETA DELA ETA KALERATUTAKO IDATZIAREKIN

Arrasate-Mondragonen ETAk eragindako atentatu krudelaren aurrean, 42 urteko Isaias Carrasco PSOEko zinegotzi-ohia hil duena, EUDELek ETAren biolentziaren kontrako aldarrikapena egin nahi du. Halaber Bakea lortzeko bideak demokrazia eta bizitzarekiko errespetua direla azpimarratu nahi du.

Jokin Bildarratz, EUDELeko Elkarteburuaren hitzetan “Isaias Carrasco politikaren boluntarioa zen, besteok bezala bere auzokoen bizi-kalitatea hobetzen saiatu eta demokraziaren barruan defendatutako ideietatik ordezten ahalegindu zena”



Zentzu horretan, Euskadiko Udalen Elkarteak Euskal Gizarteaaren aurrean hurrengoa adierazi nahi du:

Lehena- EUDELen aburuz edozein herritarren kontra atentatua egiten duenak, euskal gizarteaaren kontrako atentatua egin du.

Bigarrena- Gure gizartea anitza dela onartzen dutenak, hots, gurea bezalako gizartea aberasten duten aukera politiko, sozial eta kultural guztiak bere osotasunean aintzat hartzen dutenak baino ez dira onartuko demokrazian.

Hirugarrena- Euskadiko Udalen Elkartearen iritziz pertsona eta gizarte-erakundeen aurkako edozein atentatu, mehatxu edota gogokeria jasangaitza da, beraz, gaur goizean izandako atentatua gaitzetsi.

EUDELek berretsi nahi du: gure artean ETA SOBERAN DAGO”

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko, Goiburu eta Zinkunegi, guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

BAT EGITEA EUDELek Isaias Carrascoren hilketa dela eta bidalitako idatziarekin, goian jasota dagoen bezalaxe.

12.- BAT EGITEA, EGOKI BADA, EUDELEK LEGUTIOKO ATENTATUA DELA ETA BIDALITAKO IDATZIAREKIN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EUDELen idatziak honela dio, hitzez hitz:

“EUDELEK ETAK ERANGINDAKO ATENTATUA ERABAT GAITZETSI NAHI DU

Bilbao, 2008ko maiatzaren 14a. ETAk gaur Legutianon egindako atentatu izugarriaren aurrean eta, atentatuaren ondorioz, Juan Manuel Piñuel Villalón jaunaren heriotzaren eta beste lau zaurituen aurrean, EUDELek bere arbuiorik irmoena adierazi nahi dio ETARI eta, era berean, atentatu hau gaitzetsi nahi du, izan ere, hiltzaile batzuek ideien eta demokraziaren gainean daukaten intolerantzia erakusten du.

EUDELek adierazi nahi du:

Lehena- EUDELen aburuz edozein herritarren kontra atentatua egiten duenak, euskal gizarteaaren kontrako atentatua egin du.

Bigarrena- Gure gizartea anitza dela onartzen dutenak, hots, gurea bezalako gizartea aberasten duten aukera politiko, sozial eta kultural guztiak bere osotasunean aintzat hartzen dutenak baino ez dira onartuko demokrazian.



Hirugarrena- Euskadiko Udalen Elkartearren iritziz pertsona eta gizarte-erakundeen aurkako edozein atentatu, mehatxu edota gogokeria jasangaitza da, beraz, gaur goizean izandako atentatua gaitzetsi.”

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko, Goiburu eta Zinkunegi, guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

BAT EGITEA EUDELek Legutioko atentatua dela eta bidalitako idatziarekin, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoak azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta, hitzez hitz, honako hau dio:

“BIOLENTZIA AGERPENEN AURREAN MOZIOA

1.- Gertatutakoak, indarkeriaren adierazpen guztiak bezala, gatazkari benetako eta behin betiko konponbidea emateko beharra areagotzen du, herri honen eta herritarren eskubide guztiak errespetatuak izango diren eszenatoki demokratiko baten beharra, hain zuzen ere.

2.- Udal honek konponbidera eramango gaituen benetako marko demokratiko baten aldeko apustua egiten du, gatazkaren erroetara jo eta gertakari hauetan zein gatazkak sortzen dituen indarkeria adierazpen guztiak gaindituko dituen eszenatoki bat ekarriko duena.

3.- Udal honek arduraz jokatzeko dei bat egiten du, konponbide demokratikoaren aldeko apustua egiten du eta proiektu politiko guztiak demokratikoki gauzatzeko eszenatokia ahalbideratuko duenaren alde apustua egiten du.

4.- Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du gatazka behin betiko konponduko duen akordio politiko zabal baten alde, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herritarrek bere etorkizuna libreki eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea errespetatuko duen akordioa, hain zuzen ere.”

13.- BAT EGITEA, EGOKI BADA, ONDARROAKO ADIERAZPENAREKIN; ADIERAZPENAREN GAIA HONAKO HAU DA: SAREGILEEN LANBIDEA DUINTZEA, SAREGILE TALDEEN, NESKATILEN ETA PAKETATZAILEEN LAN BALDINTZAK ETA BALDINTZA SOZIALAK HOBETZEA ETA BIZKAICO GOLKOKO ARRANTZA SEKTOREARI EUSTEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpenak, hitzez hitz, honela dio:

“ONDARROAKO ALDARRIKAPENA

2007ko abenduak 1



Arrantza-jarduera ateratze jarduera hutsa baino askoz gehiago da. Ateratze-jarduera hau zilegizkoa izan dadin, bai aurretik eta bai ondoren, ikuspuntu sozioekonomikotik oso garrantzitsuak diren jarduerak daude. Jarduera hauen barruan, historian zehar Kantauriko itsasertzean zehar lan ezberdinak burutu dituzten emakumeen kolektiboak aipatu behar dira.

Arrantzaren sektoreak bizi duen krisia agerikoa da, batez ere ateratze sektorearena, eta ondorioz, industriak eta haren baitako zerbitzuak ere krisia bizi dute. Egoera horren aurrean eta gure jardueraren aintzat hartzearen gabeziaren, gure lanbidearen ikusezintasunaren eta gure lan egoera soziolaboral kaskarraren aurrean, guk, Euskadi itsasertzeko Saregile eta Neskatilen Elkartearen ordezkariorik, Ondarroako Neskatilen elkarteak, Galiziako Redeiras Artesanas o Peirao Federazioak, sortzear dagoen Kantauriko Baxura Sareen Elkarteak eta Lastres-Asturiasko Redeirak, honakoa adierazi nahi dugu ALDARRIKAPEN honekin:

Gure lanbideari duintasuna emateko, saregileen kolektiboen, neskatilen eta fardogileen baldintza soziolaboralak hobetzeko eta Kantauriko arrantza sektorea mantentzeko elkarlanean arituko garela, hori dela eta, dei egiten diegu:

Gobernu autonomikoei, Tokiko gobernuei, Kofradiei eta sektoreko gainerako Erakundeei:

1.- Sektorearen etorkizunari heltzeko garaian garen kolektibo profesionaltzat har gaitzatela eta banaketara edo jardueraren antolaketara bideratutako jarduerak bultzatzen ditzatela, langileen errentagarritasuna areagotzea ahalbideratzeko eta lanbidearen belaunaldiz belaunaldiko errelebua bermatzeko.

2.- Portu ezberdinetako azpiegituraren inbertsioak bultzatzen ditzatela saregileen kolektiboari zuzenduak. Bizigarritasun, erosotasun, segurtasun eta garbitasun irizpideak dituzten azpiegiturak.

3.- Sektore hauel begira, prestakuntza zehatz baterako lerroak bultzatzen daitezela.

Estatuko Gobernua deitzen dugu;

1.- Saregileen lanbidea aitortzeko behar diren neurriak gauza ditzala eta dagokion lanbide-prestakuntza bultzatzen dezala.

2.- Itsasoaren Erregimen Orokorrean gure kolektiboei koefiziente murritztaileak aplika diezaiela, Jubilatze pentsioa eskuratzeko gutxieneko adina murrizteko xedez, gure kolektiboen lan baldintza gogorrak aintzat hartuz eta gure ondoezak lan gaixotasuntzat aitortuz.

3.- Gure flotek izaten dituzten Arrantza-tokien itxiera edo urtaroko gelditzearen ondorioz, gu, jarduera falta dela-eta diru-sarrerarik gabe eta kotizatzen jarraitzeko betebehar eta beharraraz, agerian geratzean, babesteko beharrezkoak diren neurriak har ditzala.



Azkenik eta sektorearen partaide garen aldetik, arrantza sektorearen eta ondorioz, saregile, neskatila eta arrain fardogileen azpi sektoren birsortzea eta etorkizuna sustatzeko ekintza guztiak babesten ditugula adierazi nahi dugu.

Amaitzeko, gizartearen aurrean eta erakunde publiko eta pribatu ezberdinan aurrean bistako izateko helburuz elkarlanean jarduteko konpromisoa hartzen dugu, gure egoera soziolaborala hobetze aldera eta gure lanbidearen aitorpena lortzeko. Halaber, aldarrikapen hau gure erakunde guztien aurrean, publiko nahiz pribatu, aurkezteko konpromisoa hartzen dugu, gure helburuak gauzatzeko laguntza bilatuz.

IKUSIAK IZAN NAHI DUGU”

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**]:

BAT EGITEA Ondarroako adierazpenarekin, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoak azaltzeko, Karmele Belasko zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du Ondarroako Adierazpena herriko gai bat dela eta antz handia daukala LAB sindikatuak aurkeztutako mozio batekin; adierazten du eskatutako hobekuntzen alde dagoela, baina orokorrean hartuta, zeren eta arrantza sektoreak bai baitauzka, Ondarroako Adierazpen horretan agertzen direnez gain, bestelako arazoak ere. Adierazten du, baita ere, harrigarri egin zaiola kontu hau alkatzetatzik bideratu izana, berak zuzentzen duen batzorde informatzaletik bideratzeko partez. Hasiera batean, abstentzio botoa emateketan zen; baina, Orioko herriaren alde egitearren, aldatu egin du asmoa, Ondarroako Adierazpena konpromiso serioa baita.

14.- BAT EGITEA, EGOKI BADA, EUSKO LEGBILTZARRAREN OSOKO BILKURAK 2006KO EKAINAREN 30EAN TXERNOBILGO HONDAMENDI NUKLEARREN 20. URTEMUGA DELA ETA ONARTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREKIN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen Instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

“Adierazpen instituzionala: 1996-2006 Txernobileko hondamendi nuklearren 20. urteurrena.

Aurten 20 urte bete dira Txernobilgo hondamendi nuklearra gertatu zenetik. Giza tragedia hori hainbat arrazoirengatik gogoratu beharra dago. Historiako lehenengo hondamendi nuklearra da nahita egindakoa izan ez zena, hain zuzen ere energia atomikoa helburu baketsuetarako erabiltzen zenean kaltegarria ez zela zioen teoriari bukaera eman ziona. Bigarrenez, 200.000 hildako baino gehiago eta milioika eta milioika kaltetu eragin ditu jada. Zuzeneko ondorioek inolaz ere milaka eta milaka urteetan iraungo dute. Beraz, hondamendi honek bizirik dirau bere ondorioetan, ez da iraganeko kontua.

Zenbait txosten baikorrek, Energia Atomikarako Nazioarteko Agentziarenak kasu, hurrengo urteetan beste 4.000 minbizi-kasu iragartzen dituzten bitartean, nazioarteko ospea duten zenbait zientzialarik egindako azterketa zientifikoek



esaten dute minbizi-kopuru hori 30.000 eta 70.000 bitartekoia izango dela. Zuzenkiak erasandako eremuak Ukrania, Bielorussia eta Errusia diren arren, igorritako radiazioaren bi herenak herrialde horietatik kanpora joan ziren, batez ere mendebaldeko Europako hainbat eta hainbat eskualdetara. Azkenean modu batez edo bestez isurpen radioaktiboak Europaren ehuneko 40 kutsatu zuen.

Giza hondamendiaren tamaina dela eta, Nazio Batuen Garapenerako Programaren barruan programa berezi bat sortu da Txernobilerako. Programa horrek helburu hauek ditu gaur egun. Bat, aholkularitza-politika bat egitea aldaketa politiko eta instituzionalak bultzatzeko. Aldaketa horien helburua da hondamendiak zuzenkiak jotako eremu garapena, Berroneratzeko estrategia bat' izeneko Nazio Batuen txostenaren arabera, erasandako pertsona eta komunitateen autodependentzia sustatzeko, gizarte-, ekonomia-, osasun- eta ingurumen-arazoei aurre egin diezaieten. Eta amaitze, lagunza instituzionalen sistemak indartzea.

Euskadin familia eta erakundez kanpoko erakunde askoren elkartasun aktiboa goraipatu beharra dago, aspaldi-aspaldian hartzen ari baitira urtero Txernobilen hondamendiak jotako eremuetako haurrak. Era horretara lagunza handi-handia ematen dute, bai haur horien osasuna bere onera ekartzeko, bai bizi duten egoeraren ondorio psikologikoak arintzeko.

Beste giza tragedia askotan bezala, gogoratu egin behar da hondamendi hauek askoz ere ondorio larriagoak izaten dituztela biktima pobrezian bizi, egiturazko gabezi handiak izan eta erakunde-laguntzarik izaten ez dutenean. Zoritzarre, askotan ahaztu egiten zaigu per capitako BPGaren indizeei eta Nazio Batuen Garapenerako Programak urtero zabaltzen dituen indizeei begira Europak badituela herrialde batzuk hirugarren mundutzat jotzeko modukoak. Herri horiek populazio-geruza handi batzuk pobreziaaren atalasearen azpian dituzte, baita halaber gabezia handiak elikaduran, osasun-asistentziarik eza, haurrak kalean bere kaxa, familia desegiratuen kopuru asaldagarria eta umezurzegiak ume abandonatuez gainezka-gutxieneko garbitasun eta osasun baldintzarik gabe-, eta beste arazo asko eta asko, askotan gure kontinentetik kanpo baino existitzen ez direla uste dugun arren.

Guztiz argigarriak ditugu, alde horretatik, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren hitzak. Eta hau diño: 'Ez dugu ahaztu behar Txernobileko arazoaren giza dimentsioa. Gainera, hondamendi horren mende bizitzen jarraitzen duten pertsonek hainbeste behar duten nazioarteko lagunza sustatzeko asmotan, informazio publiko inpartziala eman beharra daukagu etengabe, inork ere ahaztu ez dezan gertatutakoa. Hartarako, denon ahalegin itunduak beharko ditugu. Espero dut beste estatu kide batzuek Suitzaren etsenpluari jarraitu eta behin berriro konpromisoa hartzea parte-hartze aktiboa izateko Txernobilekin lotutako sorospen-planetan. Nazio Batuek, bestalde, aurrerantzean ere etsi-etsian parte hartuko dute lan horietan'.

Eusko Legebiltzarrak, 2002ko apirilaren 16an aho batez onetsitako legez besteko proposamenean, hauxe azaldu zuen: 'Eusko Legebiltzarrak erakunde guztiei eta batez ere Eusko Jaurlaritzari eskatzen die lehentasunez Ekialdeko Europako



herrialde horientzat izenda ditzatela laguntzak, garapenreako lankidetza-programaren barruan'.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltarrak erabaki du:

1. Gogoratzea bai Txernobileko hondamendi nuklearren 20. urteurrena, bai hondamendi horrek eragindako milaka eta milaka biktimak ere.
2. Adieraztea Txernobilgo tragedia oraindik bizirik dagoela eta bai orain bai hemendik aurrera ere luzaroan biktimak eragingo dituela.
3. Animatzea euskal erakundeak eta gizartea Txernobilgo tragediak erasandako populazioaren aldeko ekimenak bultzatzen jarraitzen.
4. Eta azkena, berrestea 2002ko apirilaren 16an aho batez onetsitako ebazpena, ebazpen horretan erakundeei eskatzen baitie lehentasunez Ekialdeko Europako herrialde horientzat izenda ditzatela laguntzak, garapenerako lankidetza-programaren barruan".

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaideatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**]:

BAT EGITEA Eusko Jaurlaritzaren Osoko Bilkurak 2006ko ekainaren 30ean Txernobilgo hondamendi nuklearren 20. urtemuga dela eta onartutako adierazpen instituzionalarekin, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako bota azaltzeko, Leire Zinkunegi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du oso ondo dagoela Eusko Legebiltzarrak onartutako adierazpen instituzionala, baina gogoan izan behar dela Eusko Jaurlaritzak energia nuklearren eta eolikoaren aldeko apustua egiten duela eta, beraz, ingurumenaren alde egin nahi badu, aldez aurretik, haren kontrako jarduerak gelditu beharko lituzkeela —esate baterako, abiadura handiko trena— eta, bestalde, energiaren kontsumo orekatua bultzatu.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du Eusko Legebiltzarrak onartutako adierazpen instituzionala ez zaiola serioa iruditzen, gaia azaletik agertzen duelako; baina, hala ere, aldeko bota eman duela.

15.- BAT EGITEA, EGOKI BADA, GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALAREKIN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Giza eskubideen aldeko Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena dela eta 2008ko maiatzaren 15ean izenpetutako manifestuak honela dio, hitzez hitz:

"Euskal konpromisoa giza eskubideen alde

Duela 60 urte onartu zuen Nazio Batuen Batzar Orokorrak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. René Cassin, baionarra, izan zen Aldarrikapenaren



idazlari nagusia. Aginte publiko eta herritar guztiok bete eta betearazi behar ditugun eskubide unibertsalen katalogo bat da Aldarrikapena. Aurrerapen handia izan da Aldarrikapena gizateriaren historian. NBEko idazkari nagusiak zioenez, "Aldarrikapena da ongia eta gaizkia deritzegun horien neurria". Adierazpenaren garrantziaz ohartzeko, saiatu galdera honi erantzuten: "...eta Aldarrikapenik ez balego?".

Zorionez, badago Aldarrikapenik, eta munduko estatu ia guztiekin onartua dute eta beren legedietara eramana. Alabaina, ez da aski horrekin. Indar ahaltsuak dihardute eskubideak urratzen, eta mundu osoan bortxatzen dira. Urrakorrak dira giza eskubideak, eta arriskuan izaten dira bidegabekeria, desoreka eta desberdintasun testuinguruetan.

Giza eskubideak aintzat hartzea du gizateriak eginkizun nagusia. Hiru baldintza, gutxienik, bete behar dira helburu hori lortzeko: giza eskubideak ezagutzea, haien garrantziaz ohartzea eta haien alde jardutea. Lehenik eta behin, Aldarrikapenak zer dioen jakin behar da, irakurri, hedatu; etxeen, eskolan, lanean... eduki, gure jardunean eskura izan. Izan ere, gizakiak inoiz idatzi duen testurik garrantzitsuenetako da.

Bigarren baldintza Aldarrikapenaren esanahi sakonaz jabetzea da. Gizaki guztiok, salbuespenik gabe, daukagu zer erkide bat: gure berezko giza duintasuna. Gizakiok ez gara bitartekoak, tresnak edo ordez daitezkeen objektuak; gizaki bakoitza berez da helburu bat, bakarra, ordeztezina eta hautatzeko gaitasuna duena (Kant). Helburu garenez, gizon-emakume guztiok dugu giza duintasuna, errespetua zor zaigu eta hainbat eskubideren jabe gara. Baieztapen biribil hori da, hain zuzen ere, Aldarrikapenaren mamia eta euskarria.

Norberaren duintasun-esperientziaz baliatzean, besteenarekin egiten dugu topo. Gizakion mugaz eta sormen mugatuaz ohartzean datza esperientzia hori. Elkarritzeta, enpatia eta berradiskidetzea gauza daitezke baldin eta jabetzen bagara gure ahalmenak mugatuak direla. Ez gara egia absolutuaren jabe. Mugatuak gara. Hala eta guztiz ere, helburu bat gara. Gizaki bakoitzak arrazoia eta kontzientzia ditu, eta egoera, dohain eta ahalmen izugarritz hornitua dago. Horri esker, gai da hautatzeko, sortzeko, zoriontasuna bilatzeko..., azken batean, bizitzaren bidea egiteko.

Duintasunaren funtsezko zati dira gure mugak eta gure sormen mugagabea, eta gizakiaren alderdirik unibertsal eta gizatirrenak bilatzeko lagungarri zaizkigu. Gure kontzientziaren barruan gizakiaren lehentasunak ulertzen laguntzen digute, haren duintasunaren balio absolutuaz eta giza eskubideak aintzat hartzearen ezinbestekotasunaz jabetzen. Horregatik, giza duintasunaren eta bakearen etika ditugu gizakion eginkizun nagusia gure jarduera sozialean.

Hirugarren baldintza, berriz, konpromisoa dugu. Beste zenbait erreferentziarekin nahasturik dakusa gizartea Aldarrikapena, beste balio batzuekin alderagarria, edo are apalagoa. Ez dirudi dagoenik kontzientzia argirik Aldarrikapenaren balio izugarri eta unibertsalaz. Beharbada, gazteek berezko eskubidetzat dakusate Aldarrikapenak dioena, babestu eta sustatu beharrik ez dagoen zer higiezin gisara.



Alabaina, gure mundu honetako urrakortasunak erakutsi digu etengabe berritu beharra dagoela giza eskubideen indarraldiarekiko eta bere garrantziaren eta beharraren zentzuarekiko konpromisoa.

Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideetarako Goi Mandatariak dei egin du mundu osoan ospatzeko, 2008an, Aldarrikapenaren 60. urteurrena, "Duintasuna eta justizia denontzat" esloganarekin. Bat egin dugu Euskadin deialdiarekin eta proiektu global bati atxiki gatzaizkio, duintasunaren eta justiziaren aldeko nazioarteko sinergia batekin bat egin dugu. Era berean, gure herrira begira ere jarri gara, hemen ere urratzen eta mehatxuean jartzen baitira zenbait giza eskubide.

Agiri hau dugu konpromisoaren adierazpena. Giza duintasunaren eta oinarrizko eskubideen lehentasuna (ongia) aldarrikatzen dugu, haien zeinahi urraketari (gaizkia) kontrajarririk. Agiri honen sinatzaileok berretsi egiten dugu gizaki guztien giza eskubide guztierekiko konpromiso behin betikoa. Dena dela, eskubide urrakorrenei erreparatzen diegu bereziki, bai gure herrian bai munduan. Hala, bada, konpromiso orokor hori harturik, beste zehatzago batzuk ere gureganatzen ditugu:

1. Urratu den giza duintasuna berreskuratzea da lehentasun nagusia. Gure lehen konpromisoa da giza eskubideen aurkako zeinahi urraketaren biktimekiko elkartasuna. Bai gure herrian bai munduan, biktimei duintasuna itzultzeko, haien sufrimendua sendatzeko eta jasan duten egoera bidegabearren berrikuspen kritikoa eta argitzalea egiteko konpromisoa hartzen dugu.
2. Bitezta da giza eskubiderik gorena, beste guztien euskarria; hura gabe, gainerakoek ez dute zentzurik. Ez inongo kausa politiko edo ideologikok, ez estatu-arratoiak ez dute justifikatzen eskubide hori urratzea. Inork ez du eskubiderik beste gizaki bati bizia kentzeko. Bai gure herrian bai munduan bizitzeko eskubidearen alde jarduteko konpromisoa hartzen dugu, beste zeinahi irizpideren gainetik.
3. Bereziki zorrotza izan behar du giza eskubideen zaintzak botere publikoen aginduz atxilotutakoei edo espetxeratutakoei dagokienez. Tortura da giza duintasunaren urraketa arbuiagarrienetako bat. Gure herrian eta munduan atxilotu eta espetxeratuen eskubideak zaintzeko konpromisoa hartzen dugu, zigorgabetasunari batere tarterik utzi gabe, lege-hutsunerik onartu gabe eta egiazko berme judizialak ezarri.
4. Desberdintasunak eta bazterkeria dira duintasun-ezaren eta giza eskubideen urraketen sorburu. Gure herrian eta munduan berdintasunaren alde jarduteko konpromisoa hartzen dugu, gizarteko baztertuenen alde aritzeko baztertuenak izan ez daitezen, eta, hori lortutakoan, hurrengo baztertuenen alde segitzeko.
5. Giza duintasunak ez du sexu-bereizketarik egiten. Emakumeen diskriminazioak sufrimendu handia eragin du iraganean, eta oraindik ere bidegabekeria eta indarkeria asko jasaten dituzte emakumezkoek. Gure herrian eta munduan diskriminazio-mota oro salatzeko konpromisoa hartzen dugu, eta egiazko genero-berdintasun sozial eta legalaren alde jardutekoa.



6. Giza duintasuna aintzat hartzeak berekin dakar oinarrizko zenbait eskubide eta askatasun (indibidual eta kolektiboak) onartzea. Sarritan, ordea, segurtasunaren edo eraginkortasunaren mende jartzen dira askatasun eta eskubide horiek. Gure herrian eta munduan adierazpen-, manifestazio- eta elkartze-eskubideen alde egiteko konpromisoa hartzen dugu, eta gehiengoak demokratikoki adierazitako borondatea bete eta betearaztekoa.

7. Denok sentitu gara noizbait gutxiengoren bateko partaide. Denok gara, nolabait, emigranteak edo emigranteen ondorengoak. Gure herrian eta munduan gutxiengoekin eta emigranteekin adeitasunez jarduteko konpromisoa hartzen dugu, gainerako herriar guztien eskubide eta betekizun berekin integratzeko gizartean, inongo bereizketarik egin gabe jatorri, erlijio, sexu-joera, egoera sozial edo ideia politikoengatik.

8. Munduko edozein bazterretan, edo gure auzoan bertan, bidegabekeriak eta tragediak izaten ditugu. Ekologiari dagokionez, berriz, munduaren iraupena arriskuan dago. Gure herrian eta munduan bidegabekeriei aurre egiteko, ahulenak babesteko eta planetaren jasangarritasunaren alde egiteko konpromisoa hartzen dugu.

9. Gerra eta indarkeria dira bidegabekeriaren adierazpenik muturrekoenak, giza kontzientziaren kontraesanik bortitzena. Gure herrian eta munduan gerrari eta indarkeriari bidea ixteko konpromisoa hartzen dugu, zibilizazio, erlijio, nortasun eta ideologia desberdinaren arteko elkarritzeta eta akordioa bultzatzeko konpromisoa.

10. Bizikidetzak eskatzen du giza eskubideei buruzko informazioa izatea gizarteak, giza duintasuna hartza haien euskarritzat, eta mundu guztiak onartzen duen konpromisoa izatea eskubide horiek. Giza eskubideetarako hezkuntza eskatzen du hauen aldeko kultura, modu sistematikoan, hedatzeko oinarrizko tresna gisa. Gure herrian eta munduan giza eskubideetan hezitzeko konpromisoa hartzen dugu, hauen berri emateko eta haien premia eta indarrak bizirik iraunazteko, giza eskubideak bete eta betearazteko konpromisoa.

Giza eskubideak zatiezinak eta unibertsalak izateaz gain elkarrekin lotuta doaz. Ez da onartzen hauekiko atxikimendurik zatika edo aukeran. Bere erabilera alderdikoi edo interesatua iruzurra da eta hauen heriotza dakar. Persona guztiak defenditzeko konpromisoa hartzen dugu politika eta ideologia aurreko oinarri gisa. Hauek babesteko eta zaintzeko konpromisoa hartzen dugu, arraza, etnia, nazio, jatorri sozial, ideologia politikoa edo beste bazterketa adierarik gabe.

2008ko maiatzak 15

Txaro Arteaga, Bernardo Atxaga, Nestor Basterretxea, Garbiñe Biurrun, Gurutze Irizar, Mikel Laboa, Gorka Landaburu, Anjel Lertxundi, Ramón Múgica, Dora Salazar eta Joan Mari Torrealday.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaideatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:



BAT EGITEA giza eskubideen aldeko Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena dela eta 2008ko maiatzaren 15ean izenpetutako manifestuarekin, goian jasota dagoen bezalaxe.

16.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ, EA ETA EB-B/ARALAR UDAL TALDE POLITIKOEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, BLANCA ETA MARIBEL BRUÑO AZPIROZEN KARTZELATZEA DELA ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

“MOZIOA BLANCA ETA MARIBEL BRUÑOREN KARTZELATZEARI BURUZ

Orioko udalbatzarrak adierazi nahi du Blanca eta Maribel Bruño Azpiroz ahizpak biktimak direla. Ekainaren 9ko atxiloketak eta ondorengo kartzelatzeak bigarren aldiz bihurtu ditu biktima.

Lehenengo eta behin, ETAK mehatxupean egindako estortsioaren biktima izan ziren. Guk ez dakigu bi ahizpek ETARI dirurik ordaindu ote zioten, baina segurtasun osoa dugu diru-ordainketa hori egin baldin bazuten, mehatxu horren pean egin zutela.

Orain, Baltasar Garzon epaileak egin duen legearen interpretazio okerraren biktimak izan dira. Kalte alde batetik, eta kalte bestetik; bietan biktima.

Horiek horrela, eta aurreko astean Blanca eta Maribelen aitak egindako adierazpenekin bat eginik, Orioko udalbatzarrak honako hauek adierazten ditu:

- *Bruñotarrak 28 urte hauetan ETAK mehatxupean egindako estortsioaren biktimak izan direla.*
- *Atxiloketa honen inguruau bidezkoa ez den gehiegikeria mediatikoz izugarriaren bidez, familiari min handia eman diotela.*
- *Urte hauetan guztietan jasan duten estortsio egoera horren aurrean norberaren borondateak nekez duela lekua.*
- *Era demokratiko eta zilegietan oinarritutako adierazpen ideologikoengatik inor epaitzea, zuzenbidean eta demokrazian oinarritutako edozein estaturen aurka doala.*
- *Blanca, Maribel, eta bere familia bigarren mailako biktima gisa izan direla tratatuak.*
- *Orain 28 urte Usurbilgo Udalak egin zuen modu berean, ETAREN estortsio bidez egindako mehatxuak gaitzesten eta salatzen ditugula.*
- *Gure elkartasuna adierazi nahi diegu Blancaren eta Maribelen familiei.*
- *Blanca eta Maribelen berehalako askatasuna eskatzen dugu.*



- Azkenik, pertsona guztien eskubide guztien aldeko aldarrikapena egiten dugu.

Orion, 2008ko ekainaren 24an."

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

ONARTZEA EAJ, EA ETA EB-B/ARALAR udal talde politikoek aurkeztutako mozioa, Blanca eta Maribel Bruño Azpirozen kartzelatzea dela eta, goian jasota dagoen bezalaxe.

Belasko, Goiburu eta Zinkunegi zinegotziiek ez dute bozketa parte hartzen, beren ustez, gatazka politiko baten aurrean gaudelako, nahiz eta ez duten inolako zalantzarak Bruño Azpiroz ahizpen errugabetasunaz.

17.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du arazoak izaten dituela udaletxera sartzeko udal bulegoak itxita dauden orduetan. Alkateak erantzuten dio esanez arazo hori batzordean aztertuko dela.

Iñaki Garcia zinegotziak adierazten du, baita ere, mozio bat aurkeztu zuela aspaldi samar, Muntoko sektorearen ordenamendu urbanistikoari buruzko herri kontsulta egitea eskatuz, eta beste bi idatzi ere aurkeztu dituela, bat Dendartean elkarteari buruzkoa eta bestea berak egina Muntoko gaiari buruz, eta gaurko egunez ez duela oraindik idatzi horien erantzunik jaso.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,